

Bezeroengana iristeko hainbat estrategia erabiltzen ditugu gure zerbitzuak ezagutarazteko. Lehenik eta behin, food truckak eta sukalde mugikorrak erabiltzen ditugu ekitaldietan janaria zuzenean eskaintzeko, eta horrela bezeroei esperientzia hurbilago eta dinamikoagoa ematen diegu. Ekitaldi tematikoetan ere parte hartzen dugu, giro bereziak, musika, jarduerak eta dekorazioa bezeroekin partekatzeko eta une atseginak sortzeko.

Bestalde, sare sozialak oso garrantzitsuak dira. Instagram, TikTok eta Facebook bezalako plataformetan promozioak egiten ditugu, argazki erakargarriak partekatzen ditugu eta jendearekin harreman zuzena izaten saiatzen gara. Horrez gain, webguneak eta marketin kanpainen laguntzen digute ekitaldiak erreserbatzeko aukera eskaintzen, gure menuak eta eskaintzak erakusten eta marka ezagutzera ematen.

Azkenik, promozio bereziak eta komunitateko ekitaldiak ere baliatzen ditugu. Tokiko festetan eta antzeko ekitaldietan parte hartzeak markaren presentzia indartzen du eta bezeroekin lotura estuagoa sortzen laguntzen du.